

IL AZALPEN PROBA • <i>Izu-izua</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

“Zer edo zer egin behar dut hemendik bizirik irtengo banaiz. Derrigortu egingo ditut gelditzera!”. Eta, ez bat eta ez bi, bide bazterretik irtenda errepideko erreian bertan jartzen da besoa aterata, erpurua luze-luze eginda. Lehenengo autoak garaiz ikusi du eta bira txiki bat eginda, argi-seinalizazioa eta guzti, erraz saihestu du gaztea, opari moduan paretik pasatzean bozina-hots ikaragarria atereaz.

»Handik minutu gutxira beste ibilgailu bat hurreratzen da. Gazteak, berdin: automobila hurbildu zaionean errepidera irten da, motxila erakutsiz eta eguzkia seinalatuz. Ikusi duenean autoak ez duela abiadura murrizten, besoa luze-luze jarri du errepide erdirantz. Baina oraingoan gidaria ezustean harrapatu du, honek ez baitu espero halako mugimendu erorik. Eta, gaztea saihestu duela uste izan duen unean bertan, kolpe ikaragarri bat entzun du, eztanda moduko bat, autoaren aurreko kristala mila puskatan birrindu diona. Gidariak pentsatu du: “Zer egin ote du zoro alu horrek? Motxila autoaren aurrealdera jaurti edo zer...? Zer alukeria da hau? Akabatu ez nauenean putakumeak!”.

IL AZALPEN PROBA • <i>Izu-izua</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Julenek eta tabernariak elkarri begiratu zioten, istorioaren harrigarritasunari edo, areago, sinesgaiztasunari zegokionean ados zeudela adierazi nahi izan balute bezala.

–Bueno, lagunok, nik... lanera itzuli behar dut. Plazer bat izan da, jaunak; beste egun batean, gehiago –hau esanez jaiki zen Julen eta mostradorearen gainean hogeiko billete bat utzi zuen, tabernariari keinuz adieraziz informatzailearen ardoak ere kontuan sartzeko.

Landerrek billetea diru-kutxan sartu era bueltak ematera hurbildu zitzaionean esan zion, ahopean:

–Ez egin jaramon handirik Lukasi. Badakizu, urteekin batzuk arrarotu egiten dira. Nik dakidana da Julian ama zaharrarekin, Etxenagusia andrearekin bizi dela. Hori bai, ez bata ez bestea sekula ez dira gaztelutik irteten. Baina inoiz iturginen bat edo elektririkaren bat deitzen dutenean, etxeko zer edo zer konpontzeko, haren amak beraiekin hitz egiten omen du:

–Hortaz, ikusi egin dute.

–Ikusi, ikusi ez, baina entzun bai, edo semeak esan die ama deika duela eta itxaroteko eta ez-dakit-zer. Badakizu... Julian ere ez dago oso-oso...

IL AZALPEN PROBA • <i>Izu-izua</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

–Zazpi eta erdiak, iritsi da afaltzeko ordua. Ikuskizuna hastera doa. Goazen geure palkora! Gela berean zegoen mahai luzearen muturrean jesartzera gonbidatu zuen laguna. Arnaga mahaiburu jarri zen; Fran, haren eskuinaldean eserarazi zuen.

–Barkatu mahaiburuan jartzen banaiz, baina nire ohiko lekua da eta, dakizunez, ekanduei oso atxikia nauzu.

–Bai, noski, hala behar du gainera.

Arnagak iragarria zuen zentzumen ikuskizunak aise gainditu zuen Franek itxaron zezakeen guztia: kolore nahiz zapore anitzeko barazkiz, fruituz, landare orriz, belarrez eta lore hostoz egindako entsalada, saltsa arin bizigarri batez atondua; ahate-gibelez edota itsaskiz beteriko barazkiak, bakoitza landare desberdinek lurrineztatutako uretan arinki egosiak edo lurrunetan beratua; hauetako batzuk beroak, beste batzuk doi-doi epelak; bieirak labean; ondoren oilagorra Périgeux erara egina; bukatzeko, erbia saltsa eztiarekin. Den-dena, noski, ardo bikain jaki bakoitzari egokien zetorkionez lagundua.

–Txokolate zalea zara? –galdetu zion Arnagak gonbidatuari azkenburukoaren atarian.

–Haren maitale itsua nauzu!

–Beraz, gustuko izango duzu orain datorrena.